


Araudia

1. DATA eta LEKUA: Aramaio ibarrari bira Arrasatetik mendi martxa ekainaren 4ean ospatuko da, Arrasate herrian hasi eta amaituta. **Irteera goizeko 7:00etan izango da Biteri plazan.**
 2. IBILBIDEA: Proba Aramaio ibaiaren arroak osatzen duen azaleraren mugetatik iragaten da. Luzeak 41Km eta laburrak 34Km luze dute eta igoera metatuak 2.937 eta 2.134 metrokoak dira.
 3. PARTE-HARTZEA: 18 urtetik gorako mendizale guztiek dute proban parte hartzeko aukera, adin txikikoek gurasoen baimenaz eta nagusi batek lagundurik egingo dute proba.
 4. IZEN-EMATEAK: **500 parte-hartzaileko** mugaz, apirilaren 10tik maiatzak 28 arte. www.kirolprobak.com webgunean, edo egunean bertan irteera lekuan.
 5. PREZIOA: **kuota 10€** da federatuentzat eta 15€ federatu gabekoentzat (aparteko aseguruia kontratatzeko) aldez aurretik izena ematen dutenentzat eta 13€ eta 18€ egunean bertan izena ematen dutenentzat. Aipatutako zenbatekoek zera bermatzen dute: proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibileko aseguruia eta antolakuntzak parte-hartzaileentzako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea.
 6. OROIGARRIAK: **Mendi martxa bukatzean**  **mendi materiala oparituko da amaitzen dutenentzat.**
 7. SEINALEZTAPENA: Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, kartel adierazleekin eta ageriko balizaje zintekin.
 8. KONTROLAK: probaren luze-zabalean antolakuntzak 3 kontrol-gune jarriko ditu eta berauetatik pasatzea ezinbestekoa izango da, gune hauetan egingo baitira erregelamenduzko igarotze-kontrolak.
 9. HORNIDURA: 3 jan-edan postu atonduko dira. Postu hauetan **jana eta freskagarriak eskainiko zaizkie parte-hartzaileei.**
 10. IGAROTZE-DENBORAK: Parte-hartzaileek, gehienez ere, 10:30(Ibilbide luzea) edo 9:45 ordu (Ibilbide laburra) izango dituzte helmugara iristeko luzeraren arabera. Probaren amaiera adieraziko duten bi arduradun izango dira. Baztertua edo kanporatua den parte-hartzaile orok gertuen duen kontrol gunean eman beharko du bere parte-hartze txartela eta antolatzaileek agindu bezala utzi beharko du proba.
 11. BAZTERTZEAK: Antolakuntzako arduradunek parte-hartzaileak probatik baztertze ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:
 - Probako arauak hausten dituztenean
 - Antolatzaileek esandakoari jaramonik egiten ez diotenean edota gainontzeko parte-hartzaileekiko kiroltasunez jokatzeko ez dutenean.
 12. SAILKAPENA: mendi martxa honen xedeari kasu eginez, ez da sailkapenik egongo, denak dira irabazle.
 13. INGURUGIROA: Martxa, bere zatirik handienez, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela, **zaborrak kontrol-gunetako ontzietatik kanpora** ez botatzeko eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei.
- Oinarrizko arau hau betetzen ez duen parte-hartzaile oro **probatik kanpora** utzi ahal izango da.
14. OSASUN-LAGUNTZA: Antolakuntzak sorospen eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu ibilbideko puntu estrategikoenetan.
 15. SEGURTASUNA: Antolakuntzak, aurretik martxako batzordearekin hala adostuz gero, proba ordezko ibilbidetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, mendi martxa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.
 16. LAGUNTZA EZBEHARRETAN: Parte-hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.
 17. ERANTZUKIZUNA: Antolakuntzak erantzukizun oro ukatuko du istripuren bat gertatuz gero edota zabarkeriaz jokatzeko bada; eta baita parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienez ere. Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonari eragindako kalte ororen erantzukizuna.